



ESTADISTIKA  
ORGANOA

ORGANO  
ESTADÍSTICO

**EUSKO JAURLARITZA**

ETXEBIZITZA ETA  
HIRI AGENDA SAILA



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y  
AGENDA URBANA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

2025

HIRUHILEKOA  
2025

Hiru hilean behingo  
txostena

2025eko 3. hiruhilekoa

Alokairu-merkatuaren  
Estatistika (AME)

Etxebizitza libre kolektiboen  
ohiko alokairu-kontratuen  
azterketa estatistikoa  
(merkatuko prezioan)



## AURKIBIDEA

1.-	Etxebizitza libreen alokairuaren egoera Euskadin	3
2.-	Berariazko azterketa lurralde historikoaren arabera	6
	Araba	6
	Bizkaia	8
	Gipuzkoa	10
3.-	Populazio-geruzaren araberako analisia	12
4.-	Analisia Euskal Hiriburuetan	15
	Vitoria-Gasteiz	15
	Bilbao	18
	Donostia / San Sebastián	21
5.-	Analisi orokorra eremu funtzionalen arabera	24
	Arabako Erdialdeko E.F.	25
	Enkarterriak E.F.	26
	Goierrri E.F.	27
	Bilbo Metropolitarrak E.F.	28
	Donostialdea-Bidasoa Beherea E.F.	30
	Durangaldea E.F.	31
	Debarrena E.F.	32
	Busturialdea-Artibai E.F.	33
	Arratia E.F.	34
	Arabar Errioxa E.F.	35
	Aiara E.F.	36
	Debagoiena E.F.	37
	Mungialdea E.F.	38
	Tolosaldea E.F.	39
	Urola Kosta E.F.	40
6.-	Alderdi metodologikoak	41
7.-	Definizioak	42

### Informazio gehiago:

*Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Espezifikoa*

*Donostia / San Sebastián kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Telefono zenbakia: +34-945-01 69 61; Faxa:+34-945-01 98 56*

**WEBGUNEA:** [Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren Etxebizitza Estatistikak](#)

**Posta elektronikoa:** [estadísticas-vivienda@euskadi.eus](mailto:estadísticas-vivienda@euskadi.eus)



## 1.- ETXEBIZITZA LIBREEN ALOKAIUAREN EGOERA EUSKADIN

Alokairu Merkatuaren Estatistikaren (AME) arabera, 2025eko irailaren 30ean etxebizitzaren alokairu libreko 89.445 kontratu (merkatuko prezioan) zeuden erregistratuta eta indarrean Eusko Jaurlaritzaren fidantzen gordailuan. Horietatik, 2.730 sasoiko etxebizitzak<sup>1</sup> ziren eta, haien berezitasuna dela eta, azterketatik kanpo geratu dira. Etxebizitzaren ohiko erabilera izan arren, azterlan honetarako ez dira kontuan hartu familia bakarreko 1.647 etxebizitzak ere. Izan ere, dituzten ezaugarri bereizleak direla eta azterketa berezia merezi dute horiek.

Hortaz, AMEk 85.068 etxebizitza aztertu zituen: eraikin kolektiboetan<sup>2</sup> kokatutakoak eta ohiko etxebizitzaren bizitegi-erabilera zutenak, eta 2025eko irailaren 30ean alokairu libreko kontratua indarrean zutenak.

Bestalde, txostenean eskaintzen diren hiruhileko/urteko bilakaeraren zifrei dagokienez, ohiko etxebizitza kolektiboaren alokairu libreko kontratuak kontratua hasi zen hiruhileko/urtearen arabera sailkatzen dira, gaur egun aktibo jarraitzen duten ala ez alde batera utzita.

**2025eko irailaren 30ean indarrean dauden fidantzak, etxebizitza librearen alokairu kontratuei lotuak (merkatuko prezioetan), etxebizitza motaren eta lurralde historikoaren arabera**

Kontratu mota			Lurralde Historikoa			Guztira
			Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	
Ohiko etxebizitza	Erabilera mota	<b>Kolektiboa</b>	<b>12.089</b>	<b>30.366</b>	<b>42.613</b>	<b>85.068</b>
		Familia bakarrekoa	400	513	734	1.647
	<b>Guztira</b>		<b>12.489</b>	<b>30.879</b>	<b>43.347</b>	<b>86.715</b>
Aldi baterako etxebizitza	Erabilera mota	Kolektiboa	460	871	1.307	2.638
		Familia bakarrekoa	16	38	38	92
	<b>Guztira</b>		<b>476</b>	<b>909</b>	<b>1.345</b>	<b>2.730</b>
Guztira	Erabilera mota	Kolektiboa	12.549	31.237	43.920	87.706
		Familia bakarrekoa	416	551	772	1.739
	<b>Guztira</b>		<b>12.965</b>	<b>31.788</b>	<b>44.692</b>	<b>89.445</b>

*Iturria: Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Alokairu-merkatuaren estatistika<sup>3</sup>*

2025eko irailaren 30ean, 85.068 fidantza zeuden indarrean Euskal Autonomia Erkidegoan (ohiko erabilera kolektiboak), **etxebizitza libreen alokairu-kontratuei lotuta (merkatuko prezioetan)**. Lurraldeka, alokatutako etxebizitzaren % 14,2 Araban daude (12.089 fidantza), eta, ondoren, Gipuzkoan, % 35,7 (30.366 fidantza). Gordailu-kopuru handiena Bizkaian dago (42.613 fidantza; % 50,1).

<sup>1</sup> Urteko zati batean bakarrik, aldizka edo noizean behin erabiltzen den etxebizitza, eta pertsona baten edo gehiagoren ohiko etxebizitza ez dena.


<sup>2</sup> Nagusiki bizitegi-erabilera duen eraikin batean kokatutako etxebizitza, bi etxebizitza independente edo gehiagorentzat sarbidea eta zerbitzu komunak dituenak, non bizikidetzak ez den nahitaezko baldintza.

<sup>3</sup> Txosten honetan irudikatutako taula eta grafiko guztiek informazio-iturri hori bera dute, esplizituki adierazitako informazio-iturriak izan ezik.

Euskadi<sup>4</sup>

Euskadin ohiko erabilerarako etxebizitza kolektiboetara lotuta 2025eko irailaren 30ean indarrean zeuden etxebizitza libreen alokairu-kontratuen batez besteko errenta (merkatuko prezioetan) 791,8 eurokoa da hilean, eta 10,4 eurokoa metro karratuko.

**Gordailututako fidantzen kopurua**  
2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak



**Indarrean dauden fidantzak eta hileko batez besteko errenta 2025eko irailaren 30ean**



**Hileko errentaren estatistika deskribatzaileak (indarrean dauden kontratuak)**


2025-09-30ean indarrean zeuden kontratuak	25 perzentila	Mediana	75 perzentila
<b>Alokairu-errenta</b>			
Hileko errenta (€/hileko)	649,3€	756,0€	893,0€
Eraikitako m <sup>2</sup> ko errenta	8,1€	10,1€	12,2€
Hileko errenta perzentilean finkatutako mugatik gora duten etxebizitzaren kopurua	63.801	42.534	21.267

<sup>4</sup> Etxebizitza kolektiboetara lotutako alokairu libreako (merkatuko prezioetan) kontratuei lotutako fidantza-gordailuak hartzen dira kontuan




2025eko hirugarren hiruhilekoan eraturako fidantzak 869,7 eurora iritsi dira (aurreko urteko hiruhileko berean erregistratutakoa -834,9 €- baino % 4,2 gehiago). Eraikitako metro karratuko prezioan ikusitako urte arteko jaitsierak (-% 3,4) 0,4 euroko beherakada ekarri du, eta 2024ko hirugarren hiruhilekoan metro karratuko 11,2 eurokoa izatetik 2025eko aldi berean 10,8 eurokoa izatera igaro da<sup>5</sup>.

### Jarritako fidantzen hileko batez besteko errenta. 2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak



### Eraikitako metro koadroko errenta. 2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak



<sup>5</sup> Oharra: datu-iturriaren aldaketa: Higiezin azalera zehazteko erabilitako iturriaren aldaketak metro karratuko errentan kalkulaturako balioak aldatu ditu, eta horrek aldaketak eragin ditu datu horretatik eratorritako serie eta adierazleetan; ikus alderdi metodologikoak dokumentuaren amaieran.




## 2.- BERARIAZKO AZTERKETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA <sup>6</sup>

### Araba

Araban, 2025eko irailaren 30ean indarrean zeuden **etxebizitza libreen (merkatuko prezioetan)** 12.089 alokairu-kontratu erregistratu dira guztira, eta batez besteko errenta hilean 717,8 eurokoa zen. Euskadiko errenta baxuena duen lurraldea da, bai zenbateko absolutuetan bai metro karratuko batez besteko errentan (9,2 €/m<sup>2</sup>).

Gordailututako fidantzen kopurua  
2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak



Indarrean dauden fidantzak eta hileko batez besteko errenta 2025eko irailaren 30ean



Hileko errentaren estatistika deskribatzaileak (indarrean dauden kontratuak)


2025-09-30ean indarrean zeuden kontratuak	25 pertzentila	Mediana	75 pertzentila
<b>Alokairu-errenta</b>			
Hileko errenta (€/hileko)	603,5€	716,1€	817,5€
Eraikitako m <sup>2</sup> ko errenta	7,5€	9,0€	10,7€
Hileko errenta pertzentilean finkatutako mugatik gora duten etxebizitzaren kopurua	9.067	6.045	3.022

<sup>6</sup> Etxebizitza kolektiboaren ohiko alokairu libreko (merkatuko prezioetan) kontratuei lotutako fidantza-gordailuak hartzen dira kontuan




2025eko hirugarren hiruhilekoan eraturako fidantzen alokairuaren batez besteko prezioa % 3,0 hazi da (793,8 €) aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 6,0 igo da 2024ko hiruhileko berari dagokionez. Metro karratuko prezioan izandako bilakaerak egiaztatzen du % 4,2 jaitsi dela (9,4 €/m<sup>2</sup>), aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta. Hala ere, aurreko hiruhilekoaren aldean -% 4,8 gehitu da.

### Jarritako fidantzen hileko batez besteko errenta. 2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak



### Eraikitako metro koadroko errenta. 2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak







## Bizkaia

2025eko irailaren 30ean, 42.613 fidantza zeuden indarrean Eusko Jaurlaritzaren gordailuan erregistratuta, Bizkaiko lurralde historikoan; hileko alokairu-errenta 788,7 eurokoa zen, eta eraikitako metro karratuko errenta, berriz, 10,7 €/m<sup>2</sup>-koa.

Gordailututako fidantzen kopurua  
2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak



Indarrean dauden fidantzak eta hileko batez besteko errenta 2025eko irailaren 30ean




Hileko errentaren estatistika deskribatzaileak (indarrean dauden kontratuak)

2025-09-30ean indarrean zeuden kontratuak	25 pertzentila	Mediana	75 pertzentila
<b>Alokairu-errenta</b>			
Hileko errenta (€/hileko)	661,0€	757,5€	872,7€
Eraikitako m <sup>2</sup> ko errenta	8,6€	10,4€	12,4€
Hileko errenta pertzentilean finkatutako mugatik gora duten etxebizitzetako kopurua	31.960	21.307	10.653




2025eko hirugarren hiruhilekoan eraturako fidantzei dagokienez, ikusi da alokairuaren prezioak % 3,5 igo direla hiruhilekoko konparazioan (882,3 €, 2025eko bigarren hiruhilekoko 852,5 euroen aldean), eta, nabarmenago, % 5,1 igo dira aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Fidantza berrien metro karratuko prezioaren bilakaerari dagokionez, prezioak gora egin du (+% 2,8) 2025eko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 6,2 jaitsi da 2024ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, hau da, 10,9 €/m<sup>2</sup> izan da.

### Jarritako fidantzen hileko batez besteko errenta. 2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak



### Eraikitako metro koadroko errenta. 2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak






## Gipuzkoa

Gipuzkoak, 2025eko irailaren 30ean indarrean zituen 30.366 kontratuetan, hiru lurraldeetako alokairu-errenta absoluturik handiena erregistratu du (825,6 €/hil). Nolanahi ere, Bizkaiari dagokionez, metro karratuko batez besteko prezioa baxuagoa da (10,5 €/m<sup>2</sup>).

Gordailututako fidantzen kopurua  
2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak



Indarrean dauden fidantzak eta hileko batez besteko errenta 2025eko irailaren 30ean




Hileko errentaren estatistika deskribatzaileak (indarrean dauden kontratuak)

2025-09-30ean indarrean zeuden kontratuak	25 pertzentila	Mediana	75 pertzentila
<b>Alokairu-errenta</b>			
Hileko errenta (€/hileko)	649,3€	772,9€	945,9€
Eraikitako m <sup>2</sup> ko errenta	7,9€	10,0€	12,6€
Hileko errenta pertzentilean finkatutako mugatik gora duten etxebizitzien kopurua	22.775	15.183	7.592




2025eko hirugarren hiruhilekoan eraturako fidantzen batez besteko errenta 921,6 eurokoa da. Zifra hori aurreko hiruhilekoan erregistratutakoa baino handiagoa da (+% 3,0), eta urte arteko aldakuntzan iguera handiagoa izan dela erakusten du (+% 6,3). Metro karratuko alokairuaren prezioak gora egin du (12,3 €/m<sup>2</sup>), baina intentsitate desberdinarekin, bai 2025eko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta (% 3,0), bai aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta (% 9,5).

### Jarritako fidantzen hileko batez besteko errenta. 2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak



### Eraikitako metro koadroko errenta. 2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak





### 3.- BIZTANLERIAREN MAILAREN ARABERAKO ANALISIA<sup>7</sup>


2025eko hirugarren hiruhilekoan erregistratutako gordailu berrien batez besteko errenten azterketak honako zifra hauek ematen ditu: 607,5 €/hil 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, 888,0 €/hil 40.001 eta 100.000 biztanle arteko udalerrietan eta 950,7 €/hil hiriburuetan batez beste erregistratutako errentetan.

Urte arteko datuei erreparatuta, 2.500 eta 5.000 biztanle arteko udalerriek izan dute igoyerarik handiena (+% 11,3), eta, gero, 20.001 eta 40.000 biztanle arteko udalerrietan (+% 9,5).

2025eko hirugarren hiruhileko honetan, udalerrri guztiek, 5.001 eta 10.000 biztanle arteko biztanleria-geruzakoek izan ezik (-% 4,4), neurri handiagoan edo txikiagoan izan dituzte errenten hazkundeak urte arteko terminoetan.

Hala ere, ez da ikusten hazkunde orokor hori hiruhilekoetan. Hileko batez besteko errentak % 4,8 jaitsi dira 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan eta 5.001 eta 10.000 biztanle bitarteko udalerrietan, eta 2,4 hiriburuetan. Bestalde, hazkundeak 10.001 eta 20.000 biztanle arteko udalerrietan +% 0,3 eta 20.001 eta 40.000 biztanle bitarteko udalerrien % 5,2 artekoak dira.


**Jarritako fidantzen hileko batez besteko errenta 2.500 biztanletik beherakoak. 2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak**




<sup>7</sup>Etxebizitza kolektiboen ohiko alokairu libreko kontratuekin (merkatuko prezioetan) lotutako fidantza-gordailuak hartzen dira kontuan.




**Jarritako fidantzen hileko batez besteko errenta 2.500 eta 5.000 biztanle artean.  
2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak**



**Jarritako fidantzen hileko batez besteko errenta 5.001 eta 10.000 biztanle artean.  
2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak**




**Jarritako fidantzen hileko batez besteko errenta 10.001 eta 20.000 biztanle artean  
2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak**







**Jarritako fidantzen hileko batez besteko errenta 20.001 eta 40.000 biztanle artean.  
2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak**



**Jarritako fidantzen hileko batez besteko errenta 40.001 eta 100.000 biztanle artean.  
2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak**



**Jarritako fidantzen hileko batez besteko errenta 100.000 biztanletik gorakoak (hiriburuak).  
2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak**






## 4.- EUSKAL HIRIBURUEN ANALISIA<sup>8</sup>

### Gasteiz

Gasteizek familia-etxebizitzan % 11,1eko pisu erlatiboa du Euskadin daudenekin alderatuta, eta, antzeko moduan, Euskal Autonomia Erkidegoan 2025eko irailaren 30ean indarrean zeuden fidantzen (9.998 fidantza) % 11,8 zituen.

Aldi horretan indarrean zeuden alokairu-kontratuen batez besteko prezioa 753,9 €/hil da, eta kantitate hori aldatu egiten da etxebizitza dagoen auzoaren arabera: Abetxukon 672,9 hileko erregistratzen dira, eta Zabalgana auzoko hileko 891,8 euro.

**Gordailututako fidantzen kopurua**  
2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak



**Indarrean dauden fidantzak eta hileko batez besteko errenta 2025eko irailaren 30ean**

**9.998 kontratu**  
**753,9 €/hileko**  
**9,7 €/m<sup>2</sup>**

**Hileko errentaren estatistika deskribatzaileak (indarrean dauden kontratuak)**

2025-09-30ean indarrean zeuden kontratuak	25 pertzentila	Mediana	75 pertzentila
<b>Alokairu-errenta</b>			
Hileko errenta (€/hileko)	651,2€	750,0€	843,1€
Eraikitako m <sup>2</sup> ko errenta	8,1€	9,5€	11,0€
Hileko errenta pertzentilean finkatutako mugatik gora duten etxebizitzan kopurua	7.499	4.999	2.500


<sup>8</sup>Etxebizitza kolektiboan ohiko alokairu libreko kontratuekin (merkatuko prezioetan) lotutako fidantza-gordailuak hartzen dira kontuan.




2025eko hirugarren hiruhilekoan Gasteizen sartutako kontratuek, batez beste, hileko 828,3 euroko errentara iritsi dira, eta % 5,7ko urte arteko hazkundera izan dute. Hiruhilekoei dagokienez, halaber, ikusi da % 0,9ko igoera izan dela.

2025eko hirugarren hiruhilekoan Arabako hiriburuan erregistratutako kontratu berrien metro karratuko prezioa 9,9 €/m<sup>2</sup>-koa da, eta urte arteko % 4,3ko murrizketa eta 2025eko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta % 2,0ko igoera izan du.

Jarritako fidantzen hileko batez besteko errenta. 2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak



Eraikitako metro koadroko errenta. 2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak





## Informazioa auzoka eta barrutika

2025-09-30ean indarrean zeuden kontratuak

	Kontratuak		Hileko errenta		Eraikitako m <sup>2</sup> ko errenta	
	Fidantza kopurua	Gasteizko fidantzen gaineko %	Batez besteko prezioa €	Gasteizko batez besteko prezioaren aldea	Batez besteko prezioa €/m <sup>2</sup>	Gasteizko batez besteko prezioaren aldea
<b>Barrutia</b>						
01 barrutia	3.088	30,89	730,0	-3,17	10,1	4,20
02 barrutia	1.825	18,25	804,2	6,68	9,7	0,26
03 barrutia	1.783	17,83	737,2	-2,21	9,2	-4,76
04 barrutia	1.822	18,22	742,8	-1,46	9,9	2,35
05 barrutia	1.403	14,03	785,4	4,18	9,1	-5,95
06 barrutia	77	0,77	613,5	-18,61	8,7	-9,55
<b>Auzoa</b>						
001 Alde Zaharra / Casco Viejo	1.040	10,40	675,1	-10,44	10,7	10,70
002 Ensanche	568	5,68	857,5	13,75	11,0	13,26
003 Lovaina	470	4,70	809,1	7,32	10,1	4,38
004 Coronación	961	9,61	721,8	-4,25	9,4	-2,96
005 El Pilar	519	5,19	722,0	-4,22	9,2	-4,63
006 Gazalbide	32	0,32	x	x	x	x
007 Txagorritxu	402	4,02	774,8	2,78	9,3	-4,08
008 San Martín	235	2,35	883,6	17,21	8,8	-8,64
009 Zaramaga	639	6,39	714,9	-5,17	9,5	-2,00
010 Anglo-Vasco	261	2,61	756,3	0,33	9,2	-5,15
011 Arantzabela	64	0,64	750,7	-0,42	9,0	-7,01
012 Santiago	98	0,98	777,4	3,12	8,9	-8,31
013 Aranbizkarra	417	4,17	737,6	-2,16	8,8	-9,09
014 Arana	200	2,00	706,8	-6,24	9,5	-2,02
015 Desamparados	323	3,23	793,1	5,21	10,2	5,58
016 Judimendi	475	4,75	735,7	-2,41	9,9	2,16
017 Santa Lucía	279	2,79	743,1	-1,42	9,6	-1,10
018 Adurtza Errekaleor	335	3,35	710,7	-5,73	9,9	2,56
019 San Cristobal	396	3,96	734,5	-2,57	9,9	1,87
020 Mendizorrotza	81	0,81	824,0	9,30	11,4	17,96
021 Ariznabarra	421	4,21	743,8	-1,33	10,1	4,08
022 Ali-Gobeo	38	0,38	x	x	x	x
023 Sansomendi	541	5,41	786,2	4,29	8,9	-8,12
024 Lakua-Arriaga	752	7,52	801,1	6,27	9,3	-4,04
025 Abetxuko	72	0,72	672,9	-10,74	9,0	-6,84
026 Zona Rural Este	34	0,34	x	x	x	x
027 Zona Rural Noroeste	30	0,30	x	x	x	x
028 Zona Rural Suroeste	13	0,13	x	x	x	x
029 Zabalgana	184	1,84	891,8	18,30	9,7	0,25
030 Salburua	104	1,04	853,8	13,26	9,3	-4,00
031 Arechavaleta	14	0,14	x	x	x	x

x: Ez dago eskuragarri. Ez dago eskaintza nahikorik




## Bilbo

Bestalde, Bizkaiko hiriburuak Euskadiko etxebizitza-parkearen % 15,4 du, eta 2025eko irailaren 30ean indarrean zeuden fidantzen guztizkoaren gaineko parte-hartze kuota handiagoa dauka: % 18,7 (15.919 kontratu).

Aldi horretan alokairu-errenta txikiena zuten auzoen artean Iturrigorri-Peñascal dago, hileko 588,8 euroko batez besteko prezioarekin; Indautxuko etxebizitzek, berriz, ia bikoiztu egin dute kantitate hori, auzo horretako batez besteko errenta hilean 1.139,4 eurokoa baita. Hiriburuaren batez bestekoa hilean 872,3 eurokoa da.

**Gordailututako fidantzen kopurua**  
2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak



Indarrean dauden fidantzak eta hileko batez besteko errenta 2025eko irailaren 30ean

**15.919 kontratu**  
**872,3 €/hileko**  
**12,1 €/m<sup>2</sup>**

Hileko errentaren estatistika deskribatzaileak (indarrean dauden kontratuak)


2025-09-30ean indarrean zeuden kontratuak	25 pertzentila	Mediana	75 pertzentila
<b>Alokairu-errenta</b>			
Hileko errenta (€/hileko)	733,1€	821,4€	963,3€
Eraikitako m <sup>2</sup> ko errenta	10,1€	11,8€	13,8€
Hileko errenta pertzentilean finkatutako mugatik gora duten etxebizitzaren kopurua	11.939	7.960	3.980




2025eko hirugarren hiruhileko honetan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, batez besteko errentak % 4,4 igo dira, eta % 4,1 hazi dira 2024ko hiruhileko beraren aldean, 984,1 eurora iritsita.

Metro karratuaren prezioa (12,6 €/m<sup>2</sup>) % 2,7 igo da 2025eko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta; nolahi ere, % 5,1 jaitsi da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

### Jarritako fidantzen hileko batez besteko errenta. 2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak



### Eraikitako metro koadroko errenta. 2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak





## Informazioa auzoka eta barrutika

2025-09-30ean indarrean zeuden kontratuak

		Kontratuak		Hileko errenta		Eraikitako m <sup>2</sup> ko errenta	
		Fidantza kopurua	Bilboko fidantzen gaineko %	Batez besteko prezioa€	Bilboko batez besteko prezioaren aldea	Batez besteko prezioa/m <sup>2</sup> €	Bilboko batez besteko prezioaren aldea
<b>Barrutia</b>							
	01 barrutia	<b>1.832</b>	11,51	<b>886,8</b>	1,67	<b>11,9</b>	-1,65
	02 barrutia	<b>1.896</b>	11,91	<b>790,3</b>	-9,40	<b>11,6</b>	-4,08
	03 barrutia	<b>702</b>	4,41	<b>773,5</b>	-11,33	<b>11,5</b>	-5,26
	04 barrutia	<b>1.740</b>	10,93	<b>798,6</b>	-8,44	<b>11,8</b>	-2,64
	05 barrutia	<b>3.297</b>	20,71	<b>805,2</b>	-7,69	<b>11,4</b>	-6,41
	06 barrutia	<b>2.781</b>	17,47	<b>1135,0</b>	30,12	<b>14,5</b>	19,38
	07 barrutia	<b>2.305</b>	14,48	<b>819,5</b>	-6,04	<b>11,8</b>	-2,90
	08 barrutia	<b>1.366</b>	8,58	<b>822,3</b>	-5,73	<b>11,9</b>	-2,02
<b>Auzoa</b>							
101	San Ignacio	<b>494</b>	3,10	<b>876,1</b>	0,45	<b>11,5</b>	-5,63
102	Elorrieta	<b>17</b>	0,11	<b>x</b>	x	<b>x</b>	x
103	Ibarrekolanda	<b>383</b>	2,41	<b>897,9</b>	2,93	<b>12,1</b>	-0,61
104	Deustu / Deusto	<b>710</b>	4,46	<b>935,8</b>	7,28	<b>12,6</b>	3,53
105	La Ribera	<b>42</b>	0,26	<b>x</b>	x	<b>x</b>	x
106	Arangoiti	<b>186</b>	1,17	<b>729,0</b>	-16,42	<b>11,1</b>	-8,83
201	Castaños	<b>254</b>	1,60	<b>891,4</b>	2,20	<b>12,9</b>	6,07
202	Matiko	<b>354</b>	2,22	<b>797,9</b>	-8,52	<b>11,9</b>	-2,06
203	Ciudad Jardín	<b>23</b>	0,14	<b>x</b>	x	<b>x</b>	x
204	Uribarri	<b>719</b>	4,52	<b>777,0</b>	-10,92	<b>11,7</b>	-3,38
205	Zurbaran	<b>442</b>	2,78	<b>781,4</b>	-10,41	<b>11,0</b>	-9,66
206	Arabella	<b>101</b>	0,63	<b>722,5</b>	-17,18	<b>10,6</b>	-12,30
207	Diseminado Uribarri	<b>&lt;5</b>	0,02	<b>x</b>	x	<b>x</b>	x
301	Otxarkoaga	<b>501</b>	3,15	<b>739,7</b>	-15,20	<b>12,1</b>	-0,37
302	Txurdinaga	<b>199</b>	1,25	<b>861,6</b>	-1,23	<b>10,1</b>	-17,22
303	Disem. Otxarkoaga-Txurdinaga	<b>&lt;5</b>	0,01	<b>x</b>	x	<b>x</b>	x
401	Begoña	<b>137</b>	0,86	<b>828,0</b>	-5,07	<b>11,4</b>	-5,85
402	Santutxu	<b>1.373</b>	8,62	<b>801,6</b>	-8,10	<b>11,9</b>	-2,10
403	Bolueta	<b>230</b>	1,44	<b>763,7</b>	-12,45	<b>11,7</b>	-3,99
501	Alde Zaharra / Casco Viejo	<b>664</b>	4,17	<b>854,2</b>	-2,07	<b>12,4</b>	1,74
502	Iturralde	<b>339</b>	2,13	<b>818,1</b>	-6,21	<b>11,4</b>	-6,46
503	Solokoetxe	<b>219</b>	1,38	<b>811,3</b>	-6,99	<b>10,6</b>	-12,32
504	Atxuri	<b>290</b>	1,82	<b>749,6</b>	-14,06	<b>11,1</b>	-8,18
505	La Peña	<b>309</b>	1,94	<b>777,3</b>	-10,88	<b>10,7</b>	-12,25
506	Bilbao la Vieja	<b>208</b>	1,31	<b>758,9</b>	-12,99	<b>11,8</b>	-2,69
507	San Francisco	<b>544</b>	3,42	<b>763,3</b>	-12,49	<b>11,1</b>	-8,93
508	Zabala	<b>415</b>	2,61	<b>789,6</b>	-9,48	<b>11,4</b>	-5,82
509	San Adrián	<b>174</b>	1,09	<b>823,1</b>	-5,63	<b>10,6</b>	-12,83
510	Diseminado Ibaiondo	<b>6</b>	0,04	<b>x</b>	x	<b>x</b>	x
511	Miribilla	<b>129</b>	0,81	<b>1.014,6</b>	16,32	<b>11,4</b>	-5,73
601	Abando	<b>1.407</b>	8,84	<b>1.130,7</b>	29,63	<b>14,9</b>	22,84
602	Indautxu	<b>1.374</b>	8,63	<b>1.139,4</b>	30,63	<b>14,1</b>	16,02
701	Amezola	<b>612</b>	3,84	<b>938,8</b>	7,62	<b>12,2</b>	0,35
702	Iralabarri	<b>564</b>	3,54	<b>812,1</b>	-6,90	<b>11,3</b>	-6,90
703	Rekaldeberri	<b>771</b>	4,84	<b>806,1</b>	-7,58	<b>12,0</b>	-1,31
704	Larraskitu	<b>113</b>	0,71	<b>736,6</b>	-15,55	<b>11,2</b>	-8,10
705	Uretamendi	<b>147</b>	0,92	<b>648,5</b>	-25,65	<b>11,7</b>	-3,62
706	Iturrigorri - Peñasal	<b>97</b>	0,61	<b>588,8</b>	-32,50	<b>11,6</b>	-4,33
707	Diseminado Errekalde	<b>&lt;5</b>	0,01	<b>x</b>	x	<b>x</b>	x
801	Basurto	<b>651</b>	4,09	<b>922,1</b>	5,71	<b>13,1</b>	7,50
802	Olabeaga	<b>92</b>	0,58	<b>795,3</b>	-8,83	<b>12,3</b>	1,14
803	Masustegi - Monte Caramelo	<b>127</b>	0,80	<b>847,1</b>	-2,88	<b>11,2</b>	-7,54
804	Altamira	<b>75</b>	0,47	<b>689,8</b>	-20,92	<b>10,3</b>	-15,48
805	Zorrotza	<b>414</b>	2,60	<b>697,0</b>	-20,09	<b>10,6</b>	-12,98
806	Disen. Basurto-Zorrotza	<b>7</b>	0,04	<b>x</b>	x	<b>x</b>	x

x: Ez dago eskuragarri. Ez dago eskaintza nahikorik




## Donostia / San Sebastián

Donostiak % 11,2ko pisu erlatiboa du 2025eko irailaren 30ean indarrean zeuden fidantzen kopuruan (9.539 kontraturi dagokiena), eta Euskadiko etxebizitza-parkeari % 8,8ko ekarpena egiten dio. Alokairuen batez besteko prezioa hiru hiriburuetako altuena da: hileko 1.061,5 €.

Hiriburuko batez besteko preziorik baxuena Martutene auzoko etxebizitzetan dago (804,7 €/hil); errentarik altuenak, berriz, 1.259,0 eurokoak dira Aiete-Lugaritz eremuan.

**Gordailututako fidantzen kopurua**  
2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak



**Indarrean dauden fidantzak eta hileko batez besteko errenta 2025eko irailaren 30ean**

**9.539** kontratu  
**1.061,5** €/hileko  
**13,8** €/m<sup>2</sup>

**Hileko errentaren estatistika deskribatzaileak (indarrean dauden kontratuak)**


2025-09-30ean indarrean zeuden kontratuak	25 pertzentila	Mediana	75 pertzentila
<b>Alokairu-errenta</b>			
Hileko errenta (€/hileko)	857,3€	1.006,9€	1.248,8€
Eraikitako m <sup>2</sup> ko errenta	11,1€	13,4€	16,1€
Hileko errenta pertzentilean finkatutako mugatik gora duten etxebizitzaren kopurua	7.154	4.770	2.385




2023az geroztik, sinatutako kontratu berriak 1.000 eurotik gorakoak dira, eta 2025eko hirugarren hiruhilekoan batez beste 1.159,5 eurora iritsi dira. Fidantza berriak igoera txiki bat izan dute aurreko urteko hiruhileko berean erregistratutako zifren aldean (+% 1,8), baina % 2,6 jaitsi dira 2025eko bigarren hiruhilekoan jasotakoekin alderatuta.

2025eko hirugarren hiruhilekoan eratutako fidantza berrien metro karratuko prezioari dagokionez, urte artekoetan igo egin da (+% 3,7), baina jaitsi egin da hiruhileko terminoetan (-% 3,9), eta 15,6 €/ m<sup>2</sup>-ra iritsi baita.

### Jarritako fidantzen hileko batez besteko errenta. 2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak



### Eraikitako metro koadroko errenta. 2016-2023 urtekoa eta 2024 eta 2025. urteetako hiruhilekoak





## Informazioa auzoka eta barrutika

2025-09-30ean indarrean zeuden kontratuak

		Kontratuak		Hileko errenta		Eraikitako m <sup>2</sup> ko errenta	
		Fidantz a kopurua	Donostiako fidantzen gaineko %	Batez besteko prezioa€	Donostiako batez besteko prezioaren aldea	Batez besteko prezioa/m <sup>2</sup> €	Donostiako batez besteko prezioaren aldea
<b>Barrutia</b>							
	01 barrutia	<b>445</b>	4,67	<b>1091,9</b>	2,87	<b>14,5</b>	4,96
	02 barrutia	<b>856</b>	8,97	<b>1239,7</b>	16,79	<b>16,2</b>	17,46
	03 barrutia	<b>2.538</b>	26,61	<b>1075,8</b>	1,35	<b>13,9</b>	0,56
	04 barrutia	<b>1.285</b>	13,47	<b>1008,1</b>	-5,03	<b>13,7</b>	-0,60
	05 barrutia	<b>930</b>	9,75	<b>1084,1</b>	2,14	<b>14,6</b>	5,66
	06 barrutia	<b>1.828</b>	19,16	<b>1173,3</b>	10,54	<b>14,5</b>	4,89
	07 barrutia	<b>1.657</b>	17,37	<b>849,0</b>	-20,02	<b>11,4</b>	-17,38
<b>Auzoa</b>							
001	Aiete-Lugaritz	<b>485</b>	5,08	<b>1.259,0</b>	18,61	<b>14,5</b>	4,91
002	Altza, Buenavista, Herrera	<b>844</b>	8,85	<b>817,8</b>	-22,95	<b>11,0</b>	-20,06
003	Amara Berri, Osinaga, Loiolako Erriberak / Riberas de Loiola, Morlans	<b>1.604</b>	16,82	<b>1.057,1</b>	-0,42	<b>13,4</b>	-2,66
004	Antigua / Antiguo, Benta Berri, Ondarreta	<b>824</b>	8,64	<b>1.191,5</b>	12,25	<b>14,8</b>	7,49
005	Añorga	<b>59</b>	0,62	<b>856,8</b>	-19,28	<b>10,5</b>	-24,15
006	Ulia, Ategorrieta, Manteo	<b>117</b>	1,23	<b>965,1</b>	-9,08	<b>12,8</b>	-7,00
007	Centro	<b>1.995</b>	20,91	<b>1.178,3</b>	11,01	<b>15,6</b>	13,24
008	Egia	<b>769</b>	8,06	<b>954,9</b>	-10,04	<b>13,5</b>	-2,18
009	Gros - Sagües	<b>1.221</b>	12,80	<b>1.118,8</b>	5,40	<b>14,8</b>	6,96
010	Ibaeta - Errotaburu – Berio - Lorea	<b>365</b>	3,83	<b>1.135,7</b>	6,99	<b>14,2</b>	2,94
011	Igeldo	<b>18</b>	0,19	<b>x</b>	<b>x</b>	<b>x</b>	<b>x</b>
012	Intxaurren, Marrutxipi	<b>459</b>	4,81	<b>886,9</b>	-16,44	<b>12,0</b>	-12,96
013	Loiola, Txomin	<b>266</b>	2,79	<b>913,1</b>	-13,98	<b>12,4</b>	-9,90
014	Martutene	<b>108</b>	1,13	<b>804,7</b>	-24,19	<b>11,4</b>	-17,55
015	Miracruz - Bidebieta, Alto Miracruz, La Paz y Gaiztarro	<b>360</b>	3,77	<b>891,9</b>	-15,98	<b>11,8</b>	-14,86
016	Miramón - Zorroaga, Ospitaleak / Hospitales, Oriamendi, Illumbe	<b>41</b>	0,43	<b>x</b>	<b>x</b>	<b>x</b>	<b>x</b>
017	Zubieta	<b>&lt;5</b>	0,04	<b>x</b>	<b>x</b>	<b>x</b>	<b>x</b>

x: Ez dago eskuragarri. Ez dago eskaintza nahikorik




## 5.- ANALISI OROKORRA EREMU FUNTZIONALEN ARABERA <sup>9</sup>

2025eko irailaren 30ean Euskadin indarrean zeuden fidantzen artean alokairuaren batez besteko preziorik handiena duten eremu funtzionalak Donostialdea-Bidasoa Beherea (919,9 €) eta Bilbo Metropolitarra (823,9 €) dira, eta bi eremu funtzionalen ezaugarria da kokatuta dauden lurraldeetako hiriburuak hartzen dituztela. Hala ere, hori ez da Araba Erdialdearen kasua, Gasteiz barne hartzen badu ere, ez eremu funtzionalak ez hiriburuak ez baitute gainditzen erkidegoaren batez besteko alokairu-errenta.

Beste muturrean daude Arabako Errioxako eremu funtzionala (439,6 €) eta Aiaraldea (578,9 €) eta Busturialdea-Artibai (589,0) eremuak. Azken bi horiek errenta apur bat altuagoak dituzte

Indarrean dauden alokairuaren hileko batez besteko errentaren mapa (euro)<sup>10</sup>



<sup>9</sup> Etxebizitza kolektiboaren ohiko alokairu libreko (merkatuko prezioetan) kontratuei lotutako fidantza-gordailuak hartzen dira kontuan

<sup>10</sup> 2025eko irailaren 30n indarrean zeuden kontratuak



Eremu funtzionala

**Araba Erdialdeko E.F.**

Udalerrriak


Agurain/Salvatierra, Alegría-Dulantzi, Añana, Armiñón, Arraia-Maeztu, Arratzua-Ubarrundia, Asparrena, Barrundia, Berantevilla, Bernedo, Campezo/Kanpezu, Elburgo/Burgelu, Erriberagoitia/Ribera Alta, Harana/Valle de Arana, Iruña Oka/Iruña de Oca, Iruraiz-Gauna, Kuartango, Lagrán, Lantarón, Legutio, Otxandio, Peñacerrada-Urizaharra, Ribera Baja/Erribera Beitia, San Millán/Donemiliaga, Ubide, Urkabustaiz, Valdegovia/Gaubea, Vitoria-Gasteiz, Zalduondo, Zambrana, Zigoitia, Zuia

Biztanleria  
Eremuko udalerrri-  
kopurua288.967<sup>11</sup>

32

**2025-09-30ean indarrean zeuden kontratuak**

Fidantzen kopurua	Hileko batez besteko errenta (€/hilean)	Eraikitako m <sup>2</sup> -ko errenta
10.638	739,7 €	9,5 €

**Erregistratutako kontratu berrien hileko batez besteko alokairu-errentaren bilakaera, sinaduraren urte/hiruhilekoaren arabera****Hileko errentaren estatistika deskribatzaileak (indarrean dauden kontratuak)**

2025-09-30ean indarrean zeuden kontratuak	25 pertzentila	Mediana	75 pertzentila
<b>Alokairu-errenta</b>			
Hileko errenta (€/hileko)	632,3€	740,0€	840,5€
Eraikitako m <sup>2</sup> ko errenta	7,9€	9,3€	10,9€
Hileko errenta pertzentilean finkatutako mugatik gora duten etxebizitzien kopurua	7.979	5.319	2.660

**Eremu funtzionaleko udalerrrien arabeko informazioa**

2025-09-30ean indarrean zeuden kontratuak	Kontratuak		Hileko errenta		Eraikitako m <sup>2</sup> ko errenta	
	Fidantza kopurua	Eremu funtzionaleko fidantzen gaineko %	Batez besteko prezioa €	Diferentziala. Batez besteko prezioa. Eremu funtzionala	Batez besteko prezioa €/m <sup>2</sup>	Diferentziala. Batez besteko prezioa. Eremu funtzionala
<b>Udalerrria</b>						
Agurain/Salvatierra	195	1,83	529,3	-28,45	6,2	-34,86
Alegría-Dulantzi	101	0,95	573,9	-22,41	7,2	-24,41
Iruña Oka/Iruña de Oca	41	0,39	x	x	x	x
Vitoria-Gasteiz	9.998	93,98	753,9	1,91	9,7	2,09
2.500 biztanletik beherako udalerrriak	303	2,85	506,7	-31,51	5,8	-39,12

<sup>11</sup> Biztanleen udal estatistika. EUSTAT. 2024/01/01

Eremu funtzionala **Enkarterriak E.F.**

Udalerriak

Artzentales, Balmaseda, Galdames, Gordexola, Güeñes, Karrantza Harana/Valle de Carranza, Lanestosa, Sopuerta, Trucios-Turtzioz, Zalla

Biztanleria

32.178<sup>12</sup>


Eremuko udalerri-kopurua

10

## 2025-09-30ean indarrean zeuden kontratuak

Fidantzen kopurua	Hileko batez besteko errenta (€/hilean)	Eraikitako m <sup>2</sup> -ko errenta
943	603,2 €	7,7 €

## Erregistratutako kontratu berrien hileko batez besteko alokairu-errentaren bilakaera, sinaduraren urte/hiruhilekoaren arabera



## Hileko errentaren estatistika deskribatzaileak (indarrean dauden kontratuak)

2025-09-30ean indarrean zeuden kontratuak

25 pertzentila      Mediana      75 pertzentila

## Alokairu-errenta

Hileko errenta (€/hileko)	538,0€	605,9€	674,6€
Eraikitako m <sup>2</sup> ko errenta	6,6€	7,6€	8,8€
Hileko errenta pertzentilean finkatutako mugatik gora duten etxebizitzien kopurua	707	472	236

## Eremu funtzionaleko udalerrien arabeko informazioa

2025-09-30ean indarrean zeuden kontratuak	Kontratuak		Hileko errenta		Eraikitako m <sup>2</sup> ko errenta	
	Fidantza kopurua	Eremu funtzionaleko fidantzen gaineko %	Batez besteko prezioa €	Diferentziala. Batez besteko prezioa. Eremu funtzionala	Batez besteko prezioa €/m <sup>2</sup>	Diferentziala. Batez besteko prezioa. Eremu funtzionala
<b>Udalerria</b>						
Balmaseda	311	32,98	591,3	-1,98	7,9	1,94
Güeñes	224	23,75	613,3	1,66	8,2	5,66
Karrantza Harana/Valle de Carranza	25	2,65	x	x	x	x
Sopuerta	60	6,36	600,9	-0,39	6,9	-11,32
Zalla	267	28,31	625,5	3,69	7,8	0,78
2.500 biztanletik beherako udalerriak	56	5,94	586,7	-2,75	6,9	-10,80

<sup>12</sup> Biztanleen udal estatistika. EUSTAT. 2024/01/01




Eremu funtzionala	<b>Goierri E.F.</b>
Udalerriak	Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain, Zumarraga
Biztanleria	70.109 <sup>13</sup>
Eremuko udalerrikopurua	22

### 2025-09-30ean indarrean zeuden kontratuak

